

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Eusebio Palacin Bueso

*Oñati,
Gipuzkoa
(1940)*

Aurkibidea



Biografia



Caceresko Moraleja herrian jaio zen. Aita-amak bertakoak ziren. Aitak, Moralejako bizimodu kaxkarra ikusita, trena hartu eta Brinkolara heldu zenean, Oñatira etortzea erabaki zuen. Bera bakarrik etorri eta “Forjas Zubillaga”n hasi zen lanean. Aitzekua etxearen ganbaran etxebizitza bat prestatu eta bere emaztea eta bi umeak ekarri zituen Oñatira, Eusebiok sei urte zituenean. Oñatin urtebete egin zutenean, krisia etorri zen eta Moralejara itzuli ziren. Handik urte erdira gauzak konpontzen hasi ziren eta aita berriz itzuli zen Oñatira. Triana auzoan etxea aurkitu eta familia berriro ekarri zuenerako, hirugarren semea jaiota zegoen. Oñatin jaio zen laugarrena, hau alaba. Eusebio ez zen eskolara joan. Bederatzi urterekin zumar-zuritzen hasi zen lanean, Madinaren otzara eta jarleku lantegian. Bertan bi urte eman eta gero, Egaña okindegian egin zuen lan, gauez, bost urtez. Gero “Pilas Tximist”en (gaurko Cegasa) hasi zen, eta bertan jardun zuen jubilatuta arte. 23 urterekin, Tximistek ordainduta, eskolatu zen eta ekoizpenerako “Métodos y Tiempos” ikasketak bukatu zituen 25 urterekin. Oñatiko Portalekua etxeko Pilar Iñurritegirekin ezkondu zen eta hiru seme izan zituzten. Euskara ez ezagutzeak are gogorragoa bihurtu zuen moralejatarren bizitza hasieran, eta Eusebiok eta bere anai-arreba guztiek euskara ikasi zuten.

Zintak

ONA-130

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-08-13
- **Iraupena:** 71 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

Pasarteak

1. Aita lur-jabeentzako lanean

- **Erref:** ONA-130/002
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:00:58. **Bukatu:** 00:03:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Aita nekazaria zen. Etxean behi bat eta astoa bazituen, baina lur-jabeentzako egiten zuen lan. Idiak eta horrelakoak "señorítuek" bakarrik omen zeuzkaten. Lehengo ohituretan etxeak etxebizitza bakarrekoak ziren, ukuilu eta guzti.

2. Aita Oñatira lan bila

- **Erref:** ONA-130/003
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:03:36. **Bukatu:** 00:04:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Fundizioa
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Bizimodua estu ikusten zuen aita, eta berak bakarrik trena hartu eta Ciudad Rodrigotik Brinkolara etorri zen. Handik Oñatira eta bertan "Forjas de Zubillaga" lantegian aurkitu zuen lana.

3. Oñatin, familiarentzako etxea txukuntzen

- **Erref:** ONA-130/005
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:04:52. **Bukatu:** 00:06:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Oñatiko Haitzekua denda gaineko ganbara alokatu eta etxebizitza itxura eman zionean, Moralejan geratu ziren emazte eta umeak ekarri ahal izan zituen Eusebioren aitak. Urtebete geroago industria krisi larrian sartu zen, eta aitak lana galdu zuen. Gutxieneko soldatarekin geratu zen langabezia.

4. Moralejara eta berriro Oñatira

- **Erref:** ONA-130/007
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:07:25. **Bukatu:** 00:09:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Aita gutxieneko soldata kobratzen geratu zenean, Moralejara itzuli zen familia, gurasoak eta anaia bi. Sei hilabete geroago, aitak Oñatitik abisua jaso zuen lanera itzultzeko. Itzuli egin zen, eta etxea bilatzen ziharduela, hirugarren semea jaio zitzaion Moralejan. Triana auzoan (Gaur M. Azaoratza kalea) alokatu zuen etxea, eta berriro familia elkartu ahal izan zen.

5. Umetan euskara ezin zuen ulertu

- **Erref:** ONA-130/008
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:09:45. **Bukatu:** 00:12:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Moralejatik bigarren eztorri zirenetik Oñatin bizi dira. Hasieran, Eusebio jolasera kalera irteten zenean, negarrez bueltatzen zen etxera, ezin zuelako euskara ulertu. Ez omen zegoen etorkin asko Oñatin. Bere aita izan zen Oñatira etorritako lehen extremadurarra. Eusebiok lagun artean ikasi zuen euskara.

6. Etorkinak Oñatiko tabernetan

- **Erref:** ONA-130/009
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 00:12:01. **Bukatu:** 00:15:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Galiziar batzuk ba omen zeuden Oñatin. Gaurko Galizia Taberna, orduan "Bar Caserío" omen zen. Eusebioren aita etorri berri zela, Txopekua tabernan ez zioten txikito bat atera tabernariak erdara ulertzen ez zuelako.

7. Familia Oñatin ondo integratu zen

- **Erref:** ONA-130/010
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:15:57. **Bukatu:** 00:17:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Euren jokaera ikusita, Eusebioren familia laster onartua izan zen Oñatin, eta herritarrek integratzen lagundu zieten. Gurasoak eta seme-alabak euskaldundu egin ziren. San Martineko bola eta tokea jokoak gogoratzen ditu Eusebiok.

8. Lehengo tabernak

- **Erref:** ONA-130/012
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:20:33. **Bukatu:** 00:23:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Esteban Urmenetak "Bodegón Xolonpo" taberna kudeatzen zuen, Galarza medikuaren etxe parean zegoena. Gero galiziar batzuk hartu zuten taberna hau. Izarra taberna ere ezagutu zuen.

9. Txikiteroen greba

- **Erref:** ONA-130/013
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:23:52. **Bukatu:** 00:26:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

<p>Ardo txikitoaren prezioa pezeta batera igo zutenean, jendea protestatzeko marmitatan ardoa hartuta ibiltzen zen, kalerik kale, tabernen aurrean edaten. Mendiko kaleko saskigintza gogoan du Eusebiok.</p>

10. Akelena baserria

- **Erref:** ONA-130/014
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:26:33. **Bukatu:** 00:27:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Akelena baserría eta bere ondoan zegoen Mendaroren zerrategia (gaur biak galduta) ezagutu zituen. Santa Marinako Herriko Eskola ere bai. Eusebio ez zen inoiz eskolara joan.

11. Umetan zumar-zuritzen

- **Erref:** ONA-130/015
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:27:38. **Bukatu:** 00:31:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Atzeko kaleko "Cestería Madina"n hasi zen lanean Eusebio, zumar-zuritzen bederatzi urterekin. Txarrantxan pasatu ondoren, neskatala-mutikoek eskuz kentzen zituzten azalak. Otzarak eta aulkiak egiten zituzten. Bi urtez jardun zuen Eusebiok zumar-zuritzen.

12. Saskigintzatik okindegira

- **Erref:** ONA-130/016
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:31:15. **Bukatu:** 00:35:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

<p>Zumar-zuritzen zebiltzan neskatala-mutikoak ez ziren eskolara joaten. 11 urterekin, Egaña okindegian hasi zen lanean. Ogia nola egiten zuten azaltzen du. 1.100 irin kiloren ogia egiten zuten egunero.</p>

13. Konbentuetarako ogia

- **Erref:** ONA-130/017
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:35:08. **Bukatu:** 00:38:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Oñatiko fraide eta moja guztientzako egiten zuten ogia Egañarenean. Ugazabaren emaztea dendan egoten zen, eta semeak ogiaren banaketa egiten zuen.

14. Zahor txokolatearen hasiera

- **Erref:** ONA-130/018
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:38:47. **Bukatu:** 00:40:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Gozogintza

Laburpena:

Txokolatea ere egiten zuten Egañarenean. Iñaxio ugazabak egiten zuen lan hori. Hemen jaio zen Zahor izenarekin ezagutuko zen txokolatea. 16 urtera arte egin zuen Eusebiok lan Egañarenean.

15. Okinen lanak

- **Erref:** ONA-130/019
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:40:00. **Bukatu:** 00:43:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

16 urterekin "Pilas Tximist" (gaurko Cegasa Internacional) lantegian ekin zion. Okindegian ziharduenean, arratsaldean egiten zuen lo, ilunkaran lagunekin jolas, afaldu eta berriro ohera. Goizeko ordu batean lanera. Lau neurritako ogiak egiten zituzten. Inauterietan "Viena" ospetsuak eta garizuman "karapaixoak" ere egiten zituzten.

16. "Karapaixoak"

- **Erref:** ONA-130/020
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:43:19. **Bukatu:** 00:44:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

"Karapaixoak" nola egiten zituzten azaltzen du. Pila lantegian hasi eta gero, okindegian ere egiten zuen lan asteburu batzuetan.

17. Eusebio pila lantegian

- **Erref:** ONA-130/021
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:44:48. **Bukatu:** 00:47:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Pila lantegian hasi zenean, agindutako guztiak egiten zituen. Geroago, pila ekoizpenean erabiltzen zuten ore berezi bat egiteko makina ekarri zuten, eta makina horretan hasi zen lanean.

18. Lan larregi egiten zuen

- **Erref:** ONA-130/023
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:49:13. **Bukatu:** 00:51:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Ore berezia egiten zuen makinaren ardura hartu zuenetik, egunean 15 orduz egoten zen lantegian, zazpi egun astean. Ama larritzen hasi zen, semea nahastu egingo zitzaiolakoan, eta aitak pila lantegiko nagusiekin hitz egin zuen.

19. Eusebio talde-buru

- **Erref:** ONA-130/026
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:52:49. **Bukatu:** 00:54:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Eusebio talde-buru jarri zuten eta ordutegi normalean jarraitu zuen lanean. Horrela zegoela, soldadutza garaia iritsi zen. Soldadutzako baimen aldietan ere lanera joaten zen. Ulma kooperatiba sortu zenean, Kurtzetxon, bertan bazkidezteko aukera izan zuen.</p>

20. Triana auzoa

- **Erref:** ONA-130/029
- **Iraupena:** 0:04:39. **Hasi:** 01:01:59. **Bukatu:** 01:06:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Triana auzo zaharreko kale-baserri, denda, taberna, labadero, trapero, etab. ekartzen ditu gogora.

21. Trianako beste denda batzuk

- **Erref:** ONA-130/030
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 01:06:38. **Bukatu:** 01:09:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Trianan orain santua dagoen pareko etxean bizi zen. Artean ez zeuden auzoan Beilotzaren pentsu biltegia eta ezta beste dendatxoa ere. Esteban "Xolonpo" kalean taberna eta Trianan fruta biltegia zituen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com